**2023/01/24an EGINDAKO OHIKO UDALBATZA.**

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 24/01/2023.**

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Josu Ezkurdia Santamaría
Maite Uribe Beristain
Maria Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Xabier Uriarte Iñurrategi
Leire San Vicente Carrillo

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2023ko urtarrilaren 17an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ohiko Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 17 de enero de 2023, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

## 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2022/11/22 eta 2022/12/20.

## 2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

2023ko urtarrilaren 16ra arte hartutako erabakien berri eman da.

Berariaz eman da 24. kreditu aldaketa espedientearen berri.

## 3.- IDAZKARITZAK-KONTUHARTZAILETZAK JARRITAKO ERAGOZPENAK (2022ko uztaila-abendua).

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzailetzak legezkotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2022ko uztailaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

12. ERAGOZPENA- BUZONEOA DELA-ETA BAT EZ DATORREN FAKTURARENGATIK ERAGOZPEN TXOSTENA (140 €).

13. ERAGOZPENA: GABONEAKO PARKEAN 12 BEGIRALEK EMANDAKO ZERBITZUENGATIK BAT EZ DATOZEN FAKTURENGATIK ERAGOZPEN TXOSTENA (1.440 €).

14. ERAGOZPENA: IRAGARKIA -SARE SOZIALAK/PARTE HARTZE PLANA-ARGITARATZEAGATIK FAKTURA FALTA DELAKO ERAGOZPEN TXOSTENA (24,23 €).

LUIS EZEIZA HERRI ESKOLARI EMANDAKO DIRULAGUNTZAGATIK ERAGOZPEN TXOSTENA- onuradunak ez du pertsonalitate juridikorik.

KOLDOTXO GURASO ELKARTEARI EMANDAKO DIRULAGUNTZAGATIK ERAGOZPEN TXOSTENA- ez da behar bezala justifikatu dirulaguntzaren % 100a.

FERIXA ANTOLATZEAGATIK ARIZMENDI IKASTOLARI EMANDAKO DIRULAGUNTZAGATIK ERAGOZPEN TXOSTENA- ez da behar bezala justifikatu dirulaguntzaren % 100a.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 11 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**4.- E-GOITEK SL-REN FAKTURA ORDAINTZEA (abenduko kirol zerbitzuak).**

E-Goitek SLk faktura bat aurkeztu du, 2022ko abenduaren 31koa (96. faktura), 2022ko abenduan emandako zenbait kirol-zerbitzuri dagozkionak.

2023ko urtarrilaren 15ean egindako txostenean, idazkari-kontuhartzaileak legezkotasun eragozpena jarri dio espediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.

Udal zerbitzu teknikoek faktura horiek ordaintzearen aldeko txostena egin dute, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.

Kontuan hartuta faktura hori ordaindu ezean fede onez ari diren hirugarrenak kaltetuko liratekeela (kasu honetan, E-GOITEK SL) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela, Udalbatzarrak, bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

- E-GOITEK SLk aurkeztutako 96. faktura, 2022ko abenduaren 31koa, ORDAINTZEKO AGINTZEA. Faktura hori 2022ko abenduan emandako zenbait kirol-zerbitzuri dagokie.

**5.- JUBILATUEN ETXEKO TABERNA-SALOI ZERBITZUA USTIATZEKO KONTRATUA SUNTSITZEA.**

Udal honek José Luis Eraña Altuna jaunari esleitu zion Eskoriatzako Jubilatuen Etxeko Taberna-Aretoa zerbitzua erabili eta ustiatzeko kontratua 2012ko otsailaren 16an, 2012ko martxoaren 1ean formalizatu zen dokumentu administratiboan. Kontratu hori, beste luzapenik adosten ez bada, 2024ko otsailaren 28ra arte egongo da indarrean.

Kontratistak idazki bat aurkeztu zuen 2022ko azaroaren 4an, zerbitzua emateari uzten ziola adieraziz, baina ez zuen adierazi zein egunetan utziko zion.

Udal honek errekerimendua egin ondoren, beste idazki bat aurkeztu zuen 2022ko abenduaren 22an, kontratuari uko egiteko arrazoia negozioaren egoera prekarioa zela alegatzeko (instalazioen egokitzapen eta mantentze falta, negozioaren errentagarritasun txikia eta ticketbai ezartzeak behar duen inbertsioa), eta kontratua 2022ko abenduaren 31n suntsiaraztea eskatzeko.

Kontratistaren aldebakarreko ukoa edo atzera egitea ez dago berariaz aurreikusita kontratua suntsiarazteko modu gisa, ez baldintza agirian, ez kontratu hori arautzen duen araudian.
Administrazio publikoetako kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 legearen 207. artikuluak honakoa aurreikusten du: “Kontratua bi aldeen adostasunez suntsiaraziko bada, ezin da egon kontratua suntsiarazteko kontratistari egotz dakiokeen kausarik, eta, gainera, ez du ez beharrezko ez komenigarri izan behar kontratuak irautea, interes publikoko arrazoiak direla-eta”.
Beraz, honakoak hartu behar dira kontuan:

- Ez dago interes publikoko arrazoirik kontratuak irautea alferrikakoa edo desegokia izateko.
- Bi aldeen adostasunez kontratua suntsiaraztea bateraezina da kontratistak kontratua normaltasunez gauzatzeari bere kabuz uko egitearekin.
- Kontratistaren uko egiteko idazkia idatzita dagoen moduak ez du zalantzarik uzten zerbitzua ez emateko asmoa duela. Kontratua suntsiarazteko arrazoi gisa kontratistaren uko egitea berariaz jasotzen duen agindurik ez badago ere, uko egite hori eta, ondorioz, zerbitzua ez ematea kontratuaren funtsezko betebeharrak ez betetzea da, eta betebehar horien artean dago, nagusiki, Jubilatuen Etxeko Taberna-Aretoko zerbitzua irekita mantentzea.

Administrazio publikoetako kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 legearen 225. artikuluak honakoa xedatzen du: "*Kontratistaren erruz kontratua bete gabe gelditu eta suntsiarazten bada, eragindako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio kontratistak Administrazioari. Kalte-ordaina, lehenik eta behin, eratutako bermearen gainean gauzatuko da, hala badagokio; nolanahi ere, kontratistaren erantzukizunak bere horretan jarraituko du, bahitutako bermearen zenbatekoa gainditzen duen zenbatekoari dagokionez*"

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 88 artikuluak zehazten du berme horiek zeri lotuta dauden edo zeri erantzuten dioten:

*a) Kontratua epean egiteko betebeharra, 196. artikuluan ezarritakoaren arabera.*
*b) Kontratuan jasotako prestazioak behar bezala ematea, kontratistak bere betebeharrak betetzen berandutzeagatik Administraziori eragindako gastuak, eta kontratua bete gabe uztean edo kontratua egikaritzean Administrazioari eragindako kalte-galerak, kontratua suntsiaraztea ez badagokio.*
*c) Kontratua suntsiarazten denean ezarritako bahitzea (baldin eta ezartzen bada), kontratuan bertan edo lege honetan ezarritakoarekin bat etorriz.*
*d) Hornidura-kontratuetan, gainera, hornigaietan akatsik edo hutsik ez egoteko erantzukizunari egin behar dio aurre behin betiko bermeak, kontratuan aurreikusitako berme-epe osoan.*

Horiek horrela, azaldutako guztiaren arabera, Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak egindako proposamenarekin bat etorriz, eta Udalbatzarrari Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen bigarren xedapen gehigarriak emandako eskuduntzak erabiliz, Udalbatzarrak, 7 zinegotzik alde bozkatuta (EAJ/PNVeko 6k eta EEEko 1ek), eta gainerako 4ak (EH BILDUkoak) abstenituta, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Eskoriatzako Jubilatuen Etxeko Taberna-Areto zerbitzua erabili eta ustiatzeko Jose Luis Eraña Altuna jaunari esleitutako administrazio-kontratua suntsiarazitzat jotzea kontratistari egotz dakiokeen arrazoiengatik, ez baititu funtsezko betebeharrak bete, ez baitu zerbitzua eman eta jarduera bertan behera utzi baitu.

**BIGARRENA.-** Kontratistak 2012ko martxoaren 7an jarritako 600 euroko behin betiko bermea bahitzea.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta jar ditzakeen errekurtsoen berri ematea.

*EH BILDUko ZINEGOTZIEN BOTOAREN JUSTIFIKAZIOA: Dorleta Sologaistoak adierazi du batzorde informatzailean berak egin zuen bezala, bere taldea abstenitu egiten dela ez duelako oso garbi nola izan den prozedura.*

## 6.- GALDE-ESKEAK.

Nestor Aranak, joan zen astean Olazarreko tuneletik Fagor Automotionera arteko bidegorrian argirik ez zela egon adierazi ondoren, galdetu du ea zer gertatu zen eta zerbait egin den.

Josu Ezkurdiak erantzun dio bidegorriaren mantentze-lana Foru Aldundiaren eskuduntza dela, eta matxuraren abisua jaso zenean Aldundiari helarazi zitzaiola, eta, argitu ez dituen arrazoiengatik, Aldundiak ohi baino beranduago erantzun diola matxura horri.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:08an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

ESKORIATZAKO UDALA
alkatetza
JOSE RAMON ZUBIZARRETA ALEGRIA
2023/03/0116:37:32

ESKORIATZAKO UDALA
idazkaritza
kontuhartzaileetza
MIREN EDURNE ITURBE LASCURAIN
2023/03/0116:31:12

## 1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebrada el 22-11-2022 y el 20-12-2022.

## 2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 16 de enero de 2023.

De forma expresa se da cuenta de la aprobación del expediente de modificación de créditos Nº 24.

## 3.- REPAROS INTERPUESTOS POR SECRETARÍA-INTERVENCION (julio-diciembre 2022)

Dado que por la Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento han sido efectuados una serie de Reparos de legalidad a Resoluciones y acuerdos adoptados por la Alcaldía desde el 1 de julio al 31 de diciembre de 2023, de conformidad con lo dispuesto en el art. 218 del RDL 2/204 de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, se eleva informe al Pleno para dar cuenta de la Resoluciones adoptadas contrarias a dichos reparos.

A continuación se hace una reseña de las resoluciones y los reparos de los que ha tomado cuenta el Pleno:

REPARO Nº 12: INFORME REPAROS POR FACTURA NO CONFORME EN CONCEPTO DE BUZONEO (140 €)

REPARO Nº 13: INFORME REPAROS POR FACTURAS NO CONFORMES POR SERVICIOS PRESTADOS POR 12 MONITORES EN EL PARQUE DE NAVIDAD ( 1.440 €)

REPARO Nº 14: INFORME REPAROS POR FATLA DE FACTURA POR PUBLICACION DE ANUNCIO – SARE SOZIALAK- PARTE HARTZE PLANA (24,23 €)

REPARO A LA SUBVENCION CONCEDIDA A LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA- Falta de personalidad jurídica del beneficiario

REPARO A LA SUBVENCION CONCEDIDA A KOLDOTXO GURASO ELKARTEA- No se justifica adecuadamente el 100% de la subvención

REPARO A LA SUBVENCION CONCEDIDA A ARIZMENDI IKASTOLA PARA LA CELEBRACION DE LA FERIXA- No se justifica adecuadamente el 100% de la subvención

El Pleno, con la asistencia de 11 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

## 4.- PAGO DE FACTURA EMITIDA POR E-GOITEK S.L. (servicios deportivos de diciembre)

E-GOITEK S.L. ha presentado 1 factura de fecha 31 de diciembre de 2022 ( (Factura nº 96) , relativa a diversos servicios deportivos prestados durante diciembre de 2022.

Por la Secretaria- Interventora, con fecha 15 de enero de 2023 , se formula reparo de legalidad a dicho expediente basado en la inexistencia de contrato.

Desde los servicios técnicos municipales se informa en el sentido de proceder al abono de dichas facturas alegando que el servicio ha sido prestado satisfactoriamente y a los precios habituales de mercado.

Considerando que el no abonar las mismas implicaría perjudicar a terceros que actúan de buena fe (en este caso E-GOITEK S.L.) y un enriquecimiento injusto para esta administración, es por lo que el Pleno, con el voto favorable de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

- ORDENAR EL PAGO de las facturas nº 96, de fecha 31 de diciembre de 2022 , emitida por E-GOITEK S.L. y relativa a diversos servicios deportivos prestados durante diciembre de 2022

## 5.- RESOLUCION DEL CONTRATO DE EXPLOTACION DEL SERVICIO DE BAR-SALON DEL HOGAR DEL JUBILADO.

Este Ayuntamiento adjudicó en fecha 16 de febrero de 2012 a D. José Luis Eraña Altuna el contrato para la utilización y explotación del servicio de Bar-Salón del Hogar del Jubilado de Eskoriatza, formalizado en documento administrativo en fecha 1 de marzo de 2012. Dicho contrato, si no se acuerdan más prórrogas, tiene vigencia hasta el 28 de febrero de 2024.

El pasado 4 de noviembre de 2022 el contratista presentó escrito manifestando que dejaba de prestar el servicio, pero no señaló fecha alguna .

Previo requerimiento hecho al efecto por este ayuntamiento, con fecha 22 de diciembre de 2022 presentó nuevo escrito en el que alegaba que la causa por la que renunciaba a la ejecución del contrato era la situación precaria del negocio (falta de adecuación y mantenimiento de las instalaciones, baja rentabilidad del negocio y la inversión que requiere

implantar el ticket bai) y mediante el cual solicitaba la resolución del contrato con fecha 31 de diciembre de 2022.

Atendiendo a que la renuncia o desistimiento unilateral del contratista no está prevista de forma expresa como forma de resolución del contrato ni en el Pliego ni en la normativa que rige dicho contrato.

Atendiendo a que el art. 207 de la Ley 30/2007 de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público prevé que "La resolución por mutuo acuerdo sólo podrá tener lugar cuando no concurra otra causa de resolución que sea imputable al contratista, y siempre que razones de interés público hagan innecesaria o inconveniente la permanencia del contrato".
Considerando, por consiguiente, que:

- No existen razones de interés público que hagan innecesaria o inconveniente la permanencia del contrato.
- La resolución de mutuo acuerdo es incompatible con la renuncia unilateral del contratista a la normal ejecución del contrato
- Los términos en que aparece redactado el escrito de renuncia del contratista no dejan duda de su intención de no prestar el servicio. Aunque no exista precepto expreso que configure la renuncia del contratista como causa de resolución, esta renuncia y la consiguiente falta de prestación del servicio se entiende como incumplimiento de las obligaciones esenciales del contrato, entre las que con carácter principal figura la de mantener abierto y prestar el servicio del Bar-Salón del Hogar del Jubilado.

Visto el art. 225 de la Ley 30/2007 de 30 de octubre Ley de Contratos del Sector Público, que dispone : " *Cuando el contrato se resuelva por incumplimiento culpable del contratista, éste deberá indemnizar a la Administración los daños y perjuicios ocasionados. La indemnización se hará efectiva, en primer término, sobre la garantía que, en su caso, se hubiese constituido, sin perjuicio de la subsistencia de la responsabilidad del contratista en lo que se refiere al importe que exceda del de la garantía incautada.*

Visto que el art. 88 de la Ley 30/2007 de 30 de octubre Ley de Contratos del Sector Público, determina a qué están afectas o de qué responden las garantías:

a. *De las penalidades impuestas al contratista conforme al artículo 196.*
b. *De la correcta ejecución de las prestaciones contempladas en el contrato, de los gastos originados a la Administración por la demora del contratista en el cumplimiento de sus obligaciones, y de los daños y perjuicios ocasionados a la misma con motivo de la ejecución del contrato o por su incumplimiento, cuando no proceda su resolución.*
c. *De la incautación que puede decretarse en los casos de resolución del contrato, de acuerdo con lo que en él o en esta Ley esté establecido.*
d. *Además, en el contrato de suministro la garantía definitiva responderá de la inexistencia de vicios o defectos de los bienes suministrados durante el plazo de garantía que se haya previsto en el contrato.*

De acuerdo con todo lo expuesto , de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión de Servicios Sociales y en ejercicio de las atribuciones que confiere al Pleno de esta Corporación la Disposición Adicional Segunda de la Ley 30/2007 , de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, con los votos a favor de 7 concejales ( 6 de EAJ/PNV y 1 de EEE) y la abstención de los 4 restantes de EHBILDU, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO:** Declarar la resolución del contrato administrativo adjudicado a D. José Luis Eraña Altuna para la utilización y explotación del servicio de Bar-Salón del Hogar del Jubilado de Eskoriatza por causa imputable al contratista , debido al incumplimiento de obligaciones esenciales consistentes en la no prestación del servicio y cese de la actividad.

**SEGUNDO:** Incautar la garantía definitiva por importe de 600 euros depositada el 7 de marzo de 2012 por el contratista.

**TERCERO:** Dar traslado de este acuerdo al interesado con indicación del régimen de recursos oportuno.

** JUSTIFICACION DE VOTO DE CONCEJALES DE EH BILDU: Dorleta Sologaistoa manifiesta que, al igual que ella lo hizo en la comisión informativa, su grupo se abstiene porque no tiene muy claro cómo ha sido el procedimiento.*

## 6.-RUEGOS Y PREGUNTAS.

Nestor Arana, tras señalar que la semana pasada no hubo luz en el tramo del bidegorria que transcurre desde el túnel de Olazar hasta Fagor Automation, pregunta qué paso y si se ha hecho algo.

Josu Ezkurdia le responde que el mantenimiento del bidegorri es competencia de la Diputación Foral y que cuando se recibió el aviso de la avería se dio traslado a la diputación; que, por motivos que no ha aclarado, la diputación ha tardado más de lo usual en responder a dicha incidencia.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:08 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**